

## V - BESTELAKOAK

### FUNDACIÓN KIROLARABA FUNDAZIOA

**Kirolaraba Fundazioaren otsailaren 20ko 2020/02, 2020/03, 2020/04 eta 2020/05 ebazpenak aldatzea, zeinen bidez onetsi baitziren goi mailako klubentzako laguntzen, kirol arrakastaren ondoriozko klubentzako laguntzen, goi mailako kirolarientzako laguntzen eta kirol arrakastaren ondoriozko kirolarientzako laguntzen 2020rako deialdiak**

Kirolaraba Fundazioaren patronatuaren otsailaren 20ko 2020/02, 2020/03, 2020/04 eta 2020/05 ebazpenen bidez, onespena eman zitzairen goi mailako klubentzako laguntzen, kirol arrakastaren ondoriozko klubentzako laguntzen, goi mailako kirolarientzako laguntzen eta kirol arrakastaren ondoriozko kirolarientzako laguntzen 2020rako deialdiei.

Fundazioaren Patronatuak, 2020ko uztailaren 1ean, besteak beste 2020ko ekitaldian aurrekontua egokitu zedin onetsi zuen, Covid 19aren ondorioz, bai eta onetsitako 2020ko deialdiak berregokitu zitezten ere, zeinak aurreko paragrafoan ageri baitira.

Beraz, aurrekontu egokitzapenaren ondorioz egindako deialdien zenbatekoen aldaketek 36.000,00 euroko murrizketa ekarri dute.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

LEHENENGOA. Onespena ematea berregokitzeari; hau da, otsailaren 20ko 2020/02, 2020/03, 2020/04 eta 2020/05 ebazpenen eranskinetako klausula hauek honela aldatzeari:

2020/02 Ebazpena: aldatzea hirugarren klausulako lehenengo paragrafoa eta zortzigarren klausulako lehenengo paragrafoa.

Honako hau dioen lekuan:

“Hirugarrena. Laguntzen kopurua.

Dirulaguntzen kopuru osoak ezingo du gainditu horretara bideratutako dotazioa, 212.000,00 eurokoa, 2020ko ekitaldiko Kirolaraba fundazioaren aurrekontuari dagokiona.”

Hau esan behar du:

Hirugarrena. Laguntzen kopurua.

Dirulaguntzen kopuru osoak ezingo du gainditu horretara bideratutako dotazioa, 242.000,00 eurokoa, 2020ko ekitaldiko Kirolaraba fundazioaren aurrekontuari dagokiona.

Honako hau dioen lekuan:

“Zortzigarrena. Dirulaguntza ordaintzea.

Emandako kopuruak, Kirolaraba fundazioaren 2020ko ekitaldirako gastu aurrekontuaren kontura ordainduko dira, bi epetan; lehenengoa, laguntzaren ehuneko 70eko zenbatekoaz, justifikatu beharreko aurrerakin gisa, deialdiaren ebazpena onetsi ondoren; eta bigarrena, onetsitako zenbatekoa osatu arte, 9. oinarrian jasotzen diren agiriak aurkeztu eta gero.”

Hau esan behar du:

Zortzigarrena. Dirulaguntza ordaintzea.

Emandako kopuruak, Kirolaraba fundazioaren 2020ko ekitaldirako gastu aurrekontuaren kontura ordainduko dira, bi epetan; lehenengoa, laguntzaren ehuneko 60eko zenbatekoaz, justifikatu beharreko aurrerakin gisa, deialdiaren ebazpena onetsi ondoren; eta bigarrena, onetsitako zenbatekoa osatu arte, 9. oinarrian jasotzen diren agiriak aurkeztu eta gero.

2020/03 Ebazpena: aldatzea bigarren klausulako lehenengo paragrafoa.

Honako hau dioen lekuan:

“Bigarrena. Laguntzen zenbatekoa.

Dirulaguntzen kopuru osoak ezingo du gainditu horretara bideratutako zuzkidura, 96.000,00 eurokoa, Kirolaraba Fundazioaren 2020ko ekitaldiko aurrekontuari egotziko zaiona.”

Hau esan behar du:

Bigarrena. Laguntzen zenbatekoa.

Dirulaguntzen kopuru osoak ezingo du gainditu horretara bideratutako zuzkidura, 30.000,00 eurokoa, Kirolaraba Fundazioaren 2020ko ekitaldiko aurrekontuari egotziko zaiona.

2020/04 Ebazpena: aldatzea bigarren klausulako lehenengo paragrafoa.

Honako hau dioen lekuan:

“Bigarrena. Laguntzen zenbatekoa.

Laguntzen kopuru osoak ezingo du gainditu horretara bideratutako zuzkidura, 18.000,00 eurokoa, 2020ko ekitaldiko Kirolaraba fundazioaren aurrekontuari dagokiona.”

Hau esan behar du:

Bigarrena. Laguntzen zenbatekoa.

Laguntzen kopuru osoak ezingo du gainditu horretara bideratutako zuzkidura, 24.000,00 eurokoa, 2020ko ekitaldiko Kirolaraba fundazioaren aurrekontuari dagokiona.

2020/05 Ebazpena: aldatzea bigarren klausulako lehenengo paragrafoa eta seigarren klausulako 1 b) apartatua.

Honako hau dioen lekuan:

“Bigarrena. Laguntzen kopurua.

Dirulaguntzen kopuru osoak ezingo du gainditu horretara bideratutako zenbatekoa, hau da, 24.000,00 euro. Zenbateko hori 2020ko ekitaldiko Kirolaraba Fundazioaren aurrekontuaren kontura ordainduko da.”

Hau esan behar du:

Bigarrena. Laguntzen kopurua.

Dirulaguntzen kopuru osoak ezingo du gainditu horretara bideratutako zenbatekoa, hau da, 18.000,00 euro. Zenbateko hori 2020ko ekitaldiko Kirolaraba Fundazioaren aurrekontuaren kontura ordainduko da

Honako hau dioen lekuan:

“Seigarrena. Laguntzak emateko irizpideak.

b) Emaidza gisa lortutako kopurua edozein dela ere, honako muga hauek aplikatuko dira:

	<b>ESPAINIAKO TXAPELKETAK</b>	<b>EUROPAKO TXAPELKETAK</b>	<b>MUNDUKO TXAPELKETAK</b>	<b>OJ</b>
Muga	1.500,00 euro	2.000,00 euro	2.500,00 euro	3.500,00 euro

Hau esan behar du:

	<b>ESPAINIAKO TXAPELKETAK</b>	<b>EUROPAKO TXAPELKETAK</b>	<b>MUNDUKO TXAPELKETAK</b>
Muga	3.500,00 euro	4.000,00 euro	4.500,00 euro

**BIGARRENA.** Otsailaren 20ko 2020/02, 2020/03, 2020/04 eta 2020/05 ebazpenen gainerako edukia bere horretan eustea.

**HIRUGARRENA.** Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 21a

*Kirolaraba Fundazioko lehendakaria*

**ANA M. DEL VAL SANCHO**

*Patroia*

**PABLO DE ORAÉ OLEAGA**